

## **Funtsezko baliabideak**

Gure proiektua aurrera eramateko beharrezkoak diren elementu batzuk behar ditugu. Hasteko, honekin batera kontuan edukiko ditugu bakoitzak kanpoan izandako kontaktuak, urteak optiketan lan egiten duten lagunak edo ezagunak, haiekin elkartzeko aukera izango duguna haien dendan nola egiten diren gauzak ikusteko.

Egunak emango ditugu optika denda ezberdinetan, haiek nola lan egiten duten ikusteko eta berdin ahal izateko, bezeroarekiko tratua, non gordetzen dituzten gauzak, nolakoa izaten da egiten duten eskaintza eskaeraren arabera...

Horrekin jarraitzeko eta aurrean esan bezala, gure abileziak oso garrantzitsuak dira aurrera ateratzeko eta gure produktua ezagutzera emateko. Leire betaurrekoen diseinuaz arduratuko da, eta erakargarria izango den helburua du. Elenek, berriz, informatikarekin zer ikusia duenaz arduratuko da, kontuak eramateko beharrezkoak direlako adibidez.